



MENDAROKO  
UDALA

## 2024KO URRIAREN 29AN OSPATURIKO BATZAR OHIKOAREN AKTA

Bertaratutako Zinegotziak:

**ALKATE-LEHENDAKARIA**

Enetz Ezenarro Arriola J. (EH BILDU)

**ETORRITAKO ZINEGOTZIAK:**

Borja Rodriguez Barreras J. (EH BILDU)

Sonia Garcia Raposo A. (EH BILDU)

Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegui A. (EH BILDU)

Dorleta Lazarobaster Arakistain A. (EH BILDU)

Nerea Isasi Bedayo A. (EAJ-PNV)

Amaia Urrea Mardaraz A. (EAJ-PNV)

**TELEMATIKOKI PARTE HARTU DUTE:**

**EZIN ETORRIA ADIERAZI ZUTEN:**

**IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:**

Korporaziokoa den Nerea Etxarri Ubeda  
Anderea.

Mendaron eta Udaletxeko Areto Nagusian, bi mila eta hogeitalaugarreneko urriaren 29an zazpiak zirela, Udalbatza bildu da ohiko Osoko Bilkura egiteko.

Mahaiburu Korporazioko Alkate Lehendakaria Enetz Ezenarro Arriola izan da.

Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzen duen 7/1985 Legearen 46/2-c artikulua agintzen duena kontutan hartuz, Alkateak, hasera ematen dio Udal Ohiko Osoko Bilkura honi, aurrez konprobatuz, Korporazioko kideen gutxiengo kopurua eta Alkatea eta Idazkaria bertan daudela.

### Eguneko gai zerrenda:

1. Aurreko sesioaren aktaren berradorea onartzea, halabada (2024.09.24)
2. PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITEKO ERABAKIA ETA HITZARMENAREN ONARPENA.
3. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO AURREKONTU ALDAKETA.
4. EGUNEKO ZENTROAREN ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA.
5. LANBIDEK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO ZERBITZUAK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO DIRUZ LAGUNTZEN DITUEN PROIEKTUAK EXEKUTATZEKO, ELGOIBARKO, SORALUZETAKO, MENDAROKO, DEBAKO ETA MUTRIKUKO UDALEN ARTEAN EGITEN DEN GESTIOA, DEBABARRENEKO LURRALDE EREMUAREN ESKU UZTEKO HITZARMENA.
6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

**LEHENENGO PUNTUA. AURREKO BATZARRAREN AKTAREN ZIRRIBORROA ONARTZEA, HALABADA.**- Batzar honen deialdiari 2024.09.24 datako aurreko batzarreko aktaren



MENDAROKO  
UDALA

zirriborroa lagundurik, Zinegotzi Jaun Andereei inolako behaketarik egin behar duten galdetzen zaie.

Bat bera ere ez denez aurkezten Udalbatzak ahobatez,

### **erabakitzen du**

2024.09.24 datako Batzarraren Aktaren Zirriborroa onartu, eta honen arabera Aktara jasotzera jo.

#### **BIGARREN PUNTUA. PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITEKO ERABAKIA ETA HITZARMENAREN ONARPENA.-**

Alberto Larrañaga Olazabal jaunak, 2023ko urrian, MENDAROKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA PUNTUALA (02 "GARAGARZA 3-11" EREMUA) egiteko AURRETIAZKO AZTERLANEN dokumentua aurkeztu zion Mendaroko Udalari hirigintza-kontsultarako. Bertan, aipatutako hirigintza-aldaketaren espedientea egiteko eskatu zuen, Garagartza kaleko 13. eraikina ordeztu ahal izateko Garagartza kaleko 15. zenbakiko lursailetik gertu dauden lursailetan, Garagartza kaleko 13. higiezinak ingurumen-eragin larriak baititu, inguru horretan etengabe gertatzen diren uholdeengatik.

Mendaroko Udalak arrazoizkotzat jotzen du proposamena, interes publikokoa baita pertsona guztiek etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzeko duten eskubidea, eta, ildo horretan, eskaera justifikatzen da eraikinaren bizigarritasun-baldintza txarrekin, zonaren uholde-arriskuaren arazoengatik eta eraikinaren aurrean dauden eraikinak altueran berritzeak ingurumenean eragin dituen kalteengatik; izan ere, kalte horiek eraikina garbitzeko edozein aukera balio gabetzen dute.

Lurzoruaren okupazio jasangarriak lurzorua birgaitzea eta berrerabiltzea aurreikusten du, eta, horretarako, proposatutako irtenbidea da eraikina behar besteko kota altu batera lekualdatzea, inguruan eta bere jabetzako lurretan, udal lurzoru hiritarraren egungo mugaketari eragiten diotenak.

Alternatiba horrek esku-hartze hori modu egokian antolatzeko beharrezkoa den lurzoruaren sailkapena aldatzea dakar. Beraz, lurzoruaren sailkapen berri bat da, eta egiturazko zehaztapen bat, indarrean dagoen HAPOn Aldaketa Puntuala proposatzera behartzen gaituena.



MENDAROKO  
UDALA

Kontuan hartu da Mendaroko Udala dela, legez, udalerriko HAPOn aldaketen sustatzaile arduraduna, baina, era berean, posible dela pertsona pribatuekin lankidetzaz hitzarmenak egitea indarrean dagoen plangintzan egin daitezkeen aldaketen edukia zehazteko. Hirigintza-hitzarmenaren proposamena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIAREN edukian oinarritzen da.

Ikusita onarpena Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokiola, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90. eta 104. artikuluetan, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 26. eta 36. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2.1) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta 2024.10.22an ospaturiko batzordeak aldeko irizpena egin zuela

Udalbatzak, ahobatez,

### **e r a b a k i t z e n d u**

**LEHENENGOA.** Mendaroko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (02 AREA "GARAGARZA 3-11") aldatzeko prozedurari hasiera ematea.

**BIGARRENA.** Alberto Larrañaga Olazabal jaunarekin sinatutako hirigintza-hitzarmena onartzea, aldaketa horren edukia zehazteko.

**HIRUGARRENA.** GAO-n eta Udalaren egoitza elektronikoan hirigintza-hitzarmena eta herritarrek Plan Orokorra aldatzeko prozeduran parte hartzeko programa argitaratzea, honako mekanismo hauen bidez:

- Parte hartzeko gida, egoitza elektronikoan parte hartzeko aplikazioan sartuta.
- Jendaurreko saioak

**LAUGARRENA.** Eusko Jaurlaritzako eta dagokion foru-aldundiko organoei informazioa eskatzea dauden arriskuei buruz eta antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-baldintzatzaileei buruz, hau da, kultura-ondarea eta natura-ingurunea babesteko baldintzatzaileei buruz.

**BOSGARRENA.** Alkatetzari ahalmena ematea plangintzako irizpideak eta helburuak finkatu arte gainerako izapideekin jarraitzeko.



MENDAROKO  
UDALA

## **HIRUGARREN PUNTUA. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO AURREKONTU ALDAKETA.-**

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den 2024-KALD-000009-00 espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Idazkari kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, 2024.10.22an ospaturiko batzorde honek adostu du aipatutako espedientea ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 222.000,00 eurokoak, behin betiko onar ditzala.

Hala eta guztiz ere, aipatutako organoak bidezkotzat jotzen duena ebatziko du.

Udalbatzak, ahobatez erabakitzen du

e r a b a k i t z e n d u

2024-KALD-000009-00 KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO AURREKONTU ALDAKETA onartzea.

ERANSKINA I

### GASTUEN ALDAKETA

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.120.01.920.00 2024	OINAR.ORDAINS.ADMON.OROKO RRA	60.199,96	222.000,00	282.199,96
	<b>GUZTIRA</b>	60.199,96	222.000,00	282.199,96

FINANTZAKETA



MENDAROKO  
UDALA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.01.000.00 2024	DIRUZAINZAKO GERAKINA, GTU.OROKORRAK	222.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			222.000,00

### **LAUGARREN PUNTUA. EGUNEKO ZENTROAREN ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA.-**

Ikusirik 2006ko ekainaren Mendaroko landa eremuan dagoen eguneko zentroaren funtzionamenduaren araudia onartu zela.

Aztertu da Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Sailak egindako 2024ko ekainaren 7ko ikuskaritzan, indarrean dagoen araudian zentroko erabiltzaileen eta langileen eskubideei eta betebeharrei buruzko baldintza ez zirela jasotzen.

Kontuan izanda 2024.10.22an ospaturiko batzordeak aldeko irizpena egin zuela, udablatzak, ahobatez,

erabakitzen du

LEHENENGOA. Mendaroko landa eremuan dagoen eguneko zentroaren funtzionamendua arautzen duen udal-ordenantzaren aldaketari hasierako onespena ematea, espedientearen agertzen den moduan/ondoren jasotzen den idazketarekin:

BIGARRENA. Udal-ordenantzaren aldaketa hori jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea, Probintziako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratuta, hogeitamar eguneko epean, espedienteaz aztertu eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Erreklamazio edo iradokizun horiek Udabatzak ebatziko ditu.

Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, behin betiko onetsitako joko da, osoko bilkurak berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe.



MENDAROKO  
UDALA

Aldi berean, udal-ordenantzaren aldaketaren testua udalaren web-atarian argitaratzea [helbidea: <https://www.mendaro.eus>], eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak biltzeko.

HIRUGARRENA. Arauak ukitzen dituen eskubide edo interes legitimoak dituzten eta arauaren xedearekin zuzeneko lotura duten helburuak dituzten pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde edo elkarten iritzia zuzenean jasotzea.

LAUGARRENA. Alkate-udalburuari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten mota guztietako dokumentuak sinatzeko».

**BOSTGARREN PUNTUA. LANBIDEK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO ZERBITZUAK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO DIRUZ LAGUNTZEN DITUEN PROIEKTUAK EXEKUTATZEKO, ELGOIBARKO, SORALUZKO, MENDAROKO, DEBAKO ETA MUTRIKUKO UDALEN ARTEAN EGITEN DEN GESTIOA, DEBABARRENEKO LURRALDE EREMUAREN ESKU UZTEKO HITZARMENA.-**

2024ko urriaren 22ko Batzordean bere edukia azaldu zen eta batzordearen aldeko irizpenarekin,

Udalbatzak, ahobatez,

**e r a b a k i t z e n d u**

LEHENENGOA.- Lanbidek, enplegua eta tokiko garapena sustatzeko zerbitzuak, enplegua eta tokiko garapena sustatzeko diruz laguntzen dituen proiektuak exekutatzeko, Elgoibarko, Soralezeko, Mendaroko, Debako eta Mutrikuko udalen artean egiten den gestioa Debabarreneko lurralde eremuaren esku uzteko hitzarmena ONARTZEA.

Alkatetzari ahalmena ematea plangintzako irizpideak eta helburuak finkatu arte gainerako izapideekin jarraitzeko.

**SEIGARREN PUNTUA. ALKATETZAREN EBAZPENAK**.- 2568/1986 Dekretu Errealeko 42 artikulua arabera, azkeneko udalbatzatik gaur egunerarte Alkatetza honek emandako Ebazpenen berri ematen da: 244/2024 zbketik 284/2024 zbkira.

**244/2024 zkia:** E.E.L. zerbitzuaren luzapena onartzen, A.Z.M. andreari.

**245/2024 zkia:** Ofiziozko baja udal erroldan



MENDAROKO  
UDALA

- 246/2024 zkia:** Seigarren luzapena. Eskualdeko ospitale inguruan zuntz optikoa berria jartzeko obra lizentzia.
- 247/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 3. Hiruhila. Esp.: Z.U.ME..... Zenbatekoa: 1.383,26 €
- 248/2024 zkia:** Arno Kontserbazio Bereziko Eremuan lursaila erostea
- 249/2024 zkia:** EELZ abuztua, 21 erabiltzaile, 1.863,18 €.
- 250/2024 zkia:** Ameikutz 2024 dirulaguntza zuriketa ebazpena.
- 251/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 3. Hiruhila 2. Esp.: A.X.CP... Zenbatekoa: 339,20 €
- 252/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 3. Hiruhila Esp.: M.G.L. ... Zenbatekoa: 775,24 €
- 253/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 3. Hiruhila Esp.: H.X.H. ... Zenbatekoa: 1.058,13 €
- 254/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 3. Hiruhila . Esp.: T.M-BA.. ... Zenbatekoa: 288,3300 €
- 255/2024 zkia:** 2023/24 ikasturteko euskaltegiko ikasleei fidantza itzulketa
- 256/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 3. Hiruhila . Esp.: N.S.Y.. ... Zenbatekoa: 1.128,38 €
- 257/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 3. Hiruh. Esp.: K.X.E ... Zenbatekoa: 682,50 €
- 258/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 3. Hiruhila Esp.: G.C.S.. ... Zenbatekoa: 191,95 €
- 259/2024 zkia:** Lasalde Eder baserriko azken bi lautadetan nekazalturismoa ezartzea
- 260/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 3. Hiruhila Esp.: A-X-H.. ... Zenbatekoa: 817,01 €
- 261/2024 zkia:** 1GO. LUZAPENA. Mendaroko Plaza auzoko 24. zenbakiko Agarre-Txiki baserriaren estalkia berritzeko obra-lizentzia.
- 262/2024 zkia:** EMEZABAL BASERRIKO TEILATUAN ERRETEILA EGITEKO BAIMENA
- 263/2024 zkia:** G.L.L./A.E.S. Epealdia: 3. Hiruhila Esp.: M.X.BA... ... Zenbatekoa: 256,00 €
- 264/2024 zkia:** EIOZ %75 hobaria A.I.B.-ri onartzea.
- 265/2024 zkia:** Mendaroko 1357 zenbakiko erregistro-finkatik, 1. eranskina ("4. garajea") bereiztea, Alderdi Eder, 3 kalean.
- 266/2024 zkia.** Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuko onuraduna den I.O.M andrearen zerbitzuari baja ematea.
- 267/2024 zkia:** E.E.L. zerbitzua onartzen, U.A.MD.. andreari.
- 268/2024 zkia:** Lizitazioa Baliozkotzat jotzea eta "Mendaroko Santa Ana baselizaren teilatuko egitura zaharberritzea" obra kontratua ESLEITZEA
- 269/2024 zkia:** Herriko Enparantza 18ko merkataritza-lokala bereizteko baimena ukatzea.
- 270/2024 zkia:** Mendaroko Xake taldeari dirulaguntza ematea
- 271/2024 zkia:** Ziztu elkarteari dirulaguntza ematea
- 272/2024 zkia:** Iraileko fakturak: 66.316,32 €
- 273/2024 zkia:** Mendaroko Udaleko plantillako Gizarte Laguntzailearen plaza betetzeko, lan-kontratuko langile finkoa izendatzea Paloma Iribar Zulaika
- 274/2024 zkia:** "Lagun Betikoak" Mendaroko Erretiratu eta pentsiodunen elkarteari dirulaguntza ematen, 2024ko jarduerak eta ekintzak garatzeko
- 275/2024 zkia:** Ofiziozko baja udal erroldan, Mendarozabal, 18-2.eskuin
- 276/2024 zkia:** Lizentziarik gabeko egikaritze-bidean dauden obren hirigintza-antolamendua zaharberritzea



MENDAROKO  
UDALA

**277/2024 zkia:** Kultur Etxearen erabilera 2024 urria-abendua, 3 erabiltzaile

**278/2024 zkia:** EELZ iraila, 22 erabiltzaile. Aportazioa: 2.112,44 €.

**279/2024 zkia:** Kreditu globaletik transferentzia onartzea

**280/2024 zkia:** Sahatsuko bidean, Sahatsu-Goikoa baserri ingurutik Azpilgoeta herriguneraino landa-bide publikoa erabiltzeko baimena egurra ateratzeko.

**281/2024 zkia:** ADRIANO DOS SANTOSi baimena ematea bide publikoa okupatzeko, txurroen salmenta-postu bat jartzeko.

**282/2024 zkia:** Geogramaren kontratuaren aldaketa

**283/2024 zkia:** 40. Urterreneko kamixeten harira diruaren itzulketaren ebazpena

**284/2024 zkia:** Urriko 1.fakturak

#### ERREGU ETA GALDERAK.-

Aztertzeko gai gehiagorik ez daudenez, Alkate-Lehendakariak 19:55-etan bilkura altxatzen du. Guzti honen Akta jasotzen delarik, nik Idazkari-Kontuhartzaile moduan, Ziurtatzen dut.

O. I.,  
ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA